# GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMEI EGINDAKO EKARPENEN ARAUBIDEA

## PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

| | EUSKAL FORU OGASUNAK | LURRALDE KOMUNA | NAFARROAKO FE |
|---|---|---|---|
| **EKARPENAK** | MUGA BIKOITZA (indibiduala + enpresena) | MUGA BAKAR BATERATUA | MUGA BAKAR BATERATUA |
| MUGA OROKORRAK | 8.000 €/urtean + 8.000€/urtean | 10.000 €/urtean edo lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinen %30 (bi kopuruetan txikiena dena) | 8.000 €/urtean edo lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinen %30 (bi kopuruetan txikiena dena) |
| 50 URTETIK GORAKOEN MUGAK | Muga orokorrak | 12.500€/urtean edo lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinen %50 (bi kopuruetan txikiena dena) | 12.500€/ urtean edo lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinen %50 (bi kopuruetan txikiena dena) |
| 52 URTETIK GORAKOEN MUGAK | 1.250 €/urtean, 24.250 € arte + 1.250 €/urtean, 24.250 € arte | 50 urtetik gorakoen mugak. | 50 urtetik gorakoen mugak. |
| | | | |
| **EZKONTIDEAREN ALDE EGINDAKO EKARPENAK** | EUSKAL FORU OGASUNAK | LURRALDE KOMUNA | NAFARROAKO FE |
| SARRERARIK GABE EDO HAUEK BAINO TXIKIAGOKOAK | 8.000 €/urtean | 8.000 €/urtean | 8.500 €/urtean |
| MURRIZKETA MUGAK | 2.400 €/urtean | 2.000 €/urtean | 2.000 €/urtean |

# PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

| EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDE ERATUTAKO AURREIKUSPENEKO SISTEMEI EGINDAKO EKARPENAK | EUSKAL FORU OGASUNAK | LURRALDE KOMUNA | NAFARROAKO FE |
|---|---|---|---|
| **MURRIZKETA MUGAK** | | | |
| ▪ **EZINDUAREN EKARPENAK** | **24.250 €/urtean** | **24.250 €/urtean** | **24.250 €/urtean** |
| ▪ **EZINDUAREN ALDE EGINDAKO EKARPENAK** | **8.000 €/urtean, ezinduarekin lotura duen pertsona bakoitzeko.** | **10.000 €/urtean, ezinduarekin lotura duen pertsona bakoitzeko.** | **10.000 €/urtean, ezinduarekin lotura duen pertsona bakoitzeko.** |
| ▪ **EKARPENAK GUZTIRA (EZINDUARENAK BARNE)** | **24.250€/urtean** | **24.250€/urtean** | **24.250€/urtean** |
| **EGOTZITAKO ENPRESA EKARPEN ETA KONTRIBUZIOEN GAINDIKINA MUGAK GAINDITZEAGATIK EDO ZERGA OINARRIA ASKI EZ IZATEAGATIK** | **Hurrengo bost ekitaldietan** murrizteko aukera. | **Hurrengo bost ekitaldietan** murrizteko aukera, zerga oinarria **aski ez izateagatik edo ehuneko muga ezartzeagatik;** murrizteko gehieneko mugak gainditu ez badira betiere. | **Hurrengo bost ekitaldietan** murrizteko aukera, **mugak gainditzeagatik**. |

# PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

| KENKARIA KUOTA OSOAN ENPRESEN EREMUAN GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMEI EKARPENAK EGITEAGATIK | EUSKAL FORU OGASUNAK | LURRALDE KOMUNA ETA NAFARROAKO FE |
|---|---|---|
| | • Zenbatekoa: zergaldian baztertzaileak ez diren gizarte eta enpresa aurreikuspeneko tresnei ekarritako kopuruen **%50, urteko 200 euroko gehieneko mugarekin**.<br>• Kenkariaren oinarria honakoek osatzen dute:<br>✓ 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hitzarmen, akordio kolektibo edo horien baliokide den xedapenaren ondorioz eratzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen berriak.<br>✓ Langileak aurreko ekitaldian egindako ekarpenaren aldean, ehuneko hazkuntza dakarten eta dagoeneko badiren sistemei egindako ekarpenen hazkuntzak.<br>• Ez dira kenkariaren oinarrian sartuko:<br>✓ Langileak egindako ekarpenak, borondatez eta hitzarmen, akordio kolektibo edo horien baliokide den xedapenaren bitartez hitzartutakoen gainetik.<br>✓ Enpresen ekarpenak.<br>• Indarraldia: 2007ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra arte. | Ez |

# SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

| KENKARIA BAZKIDE BABESLEEK LANGILEEI EGOTZITAKO EKARPENAK EGITEAGATIK | EUSKAL FORU OGASUNAK | LURRALDE KOMUNA | NAFARROAKO FE |
|---|---|---|---|
| | • **Kenkaria gastu bezala** Zergaren Zerga Oinarrian.<br><br>• Ekarpenaren **%10eko kenkaria kuota likidoan,** langile bakoitzeko 8.000 euroko gehieneko ekarpen mugarekin; baztertzailea ez bada betiere. | • **Kenkaria gastu bezala** Zergaren Zerga Oinarrian.<br><br>• Ekarpenaren **%10eko kenkaria kuota likidoan,** langile bakoitzeko 8.000 euroko gehieneko ekarpen mugarekin; urtean 27.000 € gordin baino gutxiago jasotzen baditu. 27.000 € edo gehiago jasoz gero: 27.000 €ri dagokion zati proportzionala. Kenkari hori %10a 0,8, 0,6, 0,4 edo 0,2 koefizienteaz biderkatzean zehaztuko da 2007, 2008, 2009 eta 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan, hurrenez hurren. Hortaz, 2011tik aurrera desagertu egingo da. | • **Kenkaria gastu bezala** Zergaren Zerga Oinarrian.<br><br>• Ekarpenaren **%10eko kenkaria kuota likidoan,** langile bakoitzeko 8.000 euroko gehieneko ekarpen mugarekin; urtean 27.000 € gordin baino gutxiago jasotzen baditu. 27.000 € edo gehiago jasoz gero: 27.000 €ri dagokion zati proportzionala. |

# SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

| ALDI BATERAKO KENKARIA KUOTA LIKIDOAN BAZKIDE BABESLEEK LANGILEEI EGOTZITAKO EKARPENAK EGITEAGATIK | EUSKAL FORU OGASUNAK | LURRALDE KOMUNA, NAFARROAKO FE |
|---|---|---|
| | • Zenbatekoa: zergaldian baztertzaileak ez diren gizarte eta enpresa aurreikuspeneko tresnei ekarritako kopuruen **%50, urteko 200 euroko gehieneko mugarekin**.<br>• Kenkariaren oinarria honakoek osatzen dute:<br>✓ 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hitzarmen, akordio kolektibo edo horien baliokide den xedapenaren ondorioz eratzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako enpresa kontribuzio edo ekarpen berriak.<br>✓ Langileak aurreko ekitaldian egindako ekarpenaren aldean, ehuneko hazkuntza dakarten eta dagoeneko badiren sistemei egindako enpresa kontribuzio edo ekarpenen hazkuntzak.<br>• Ez dira kenkariaren oinarrian sartuko:<br>✓ Langileak egindako kontribuzio edo ekarpenak, borondatez eta hitzarmen, akordio kolektibo edo horien baliokide den xedapenaren bitartez hitzartutakoen gainetik.<br>• Indarraldia: 2007ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra arte. | Ez |

# GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMEI EMANDAKO PRESTAZIOEN ARAUBIDEA

## PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

<table>
<tr><th>PRESTAZIOAK</th><th colspan="2">EUSKAL FORU OGASUNAK</th><th colspan="2">LURRALDE KOMUNA</th><th colspan="2">NAFARROAKO FE</th></tr>
<tr><td>ZERGA TRATAMENDUA</td><td colspan="2">LANAREN ETEKINA</td><td colspan="2">LANAREN ETEKINA</td><td colspan="2">LANAREN ETEKINA</td></tr>
<tr><td>• ERRENTA ERAN</td><td colspan="2">%100</td><td colspan="2">%100</td><td colspan="2">%100</td></tr>
<tr><td>• KAPITAL ERAN</td><td colspan="2">%60<br>• Jasotako lehenengo kopurua (1.go ekarpena egin denetik 2 urte baino gehiago igaro badira, baliaezintasun edo mendekotasun kasuetan izan ezik) eta, gainera,<br>• Elkarren segidako jasotzeak: 5 urtean behin, ekarpenetan aldizkakotasuna eta erregulartasuna badago betiere.</td><td colspan="2">• %100 (orokorrean)<br>• %60 (aldi baterako araubidean soilik)</td><td colspan="2">• %60 (orokorrean) edo<br>• %50 (baliaezintasunaren ziozko prestazioak)</td></tr>
<tr><td>• ERA MISTOAN (KAPITALA-ERRENTA)</td><td>KAPITALA:<br>%60</td><td>ERRENTA:<br>%100</td><td>KAPITALA:<br>%100 (%60 aldi baterako araubidea)</td><td>ERRENTA:<br>%100</td><td>KAPITALA:<br>%60, edo %50 baliaezintasunagatik bada</td><td>ERRENTA:<br>%100</td></tr>
</table>

# PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

| PRESTAZIOAK | EUSKAL FORU OGASUNAK | LURRALDE KOMUNA | NAFARROAKO FE |
|---|---|---|---|
| **EZINTASUNA DUTEN PERTSONEK ERRENTA ERAN JASOTAKO PRESTAZIOAK** | Lanbide arteko gutxieneko soldataren **(LGS) salbuespena,** gehienez **hiru aldiz.** | Ondorio askotarako errenta adierazle publikoaren **(OAEAP) salbuespena,** gehienez **hiru aldiz.** | Ondorio askotarako errenta adierazle publikoaren **(OAEAP) murrizketa,** gehienez **hiru aldiz.** |